

-IRUZKINAK-

6. GAIA → 2. iruzkina: “Will you stand this?”

1. Sarrera:

Aztergai dugun irudi hau I. Mundu Gerran kokatzen da, 1914ko abenduaren 16an, alemaniarrek britaniar kostako Scarborough hiria bonbardeatu zutenean, hain zuzen ere. Kartel edo horma-irudi honek, bonbardeaketak Britania Handian eragin zuen sarraskia salatzea du helburu, eta baita herritar gizonezkoak bertako zerbitzu armatuetan izena emateko konbentzitzea ere, azken hauei, kartelean agertzen den galdera zuzen baten bitartez dei eginez: “hau jasango duzu?”

2. Azalpena:

Lehenengo Mundu Gerra, Europan piztu eta gehienbat bertan jazotako mundu gerra izan zen, 1914ko uztailean hasi eta 1918ko azaroan amaitu zena. Historiako handienetako bat izan zen, jende asko mobilizatu baitzen militar aritzeko. Hainbat genozidio erraztu zituen, gainera, eta milioika pertsona hil.

Europako potentziak bi koaliziotan zeuden banatuta: Entente Hirukoitza, alde batetik; Frantzia, Errusia eta Britania Handia. Bestetik, Aliantza Hirukoitza; Austria-Hungaria, Alemania eta Italia. Garai honetan, norberak bere nazioaren aldeko apustua egin eta nazionalismo gogorra sustatu zen.

Masen irrazionaltasunaren ideia ezin liteke gera aipatu gabe testuinguru honen aurrekari gisa, masen hiritar kultura sustatzen hasi baitzen Lehen Mundu Gerraren aurretik, eta honekin batera iritsi zen prentsaren urrezko aroa, prentsaren indarra gailendu zuen aroa, alegia; kazetaritza negozio errentagarriak sortu ziren, hau da, enpresa egitura handiak, langile asko, enpresa handikiak... etab. Beraz, prentsaren barruan, kompetentzia handia egon zen. Diseinuak garrantzia handia zuen prentsaren urrezko garai honetan; diseinu erakargarriagoak sortzen hasi ziren, eta horrekin batera baita produktuen aniztasuna, linotipia, errotatiba, trenbide sarearen hobekuntza, Telefonoa eta tiraden kontrola ere. Hala, XIX. mendearen amaieran, hedabide berriak sortzen hasi ziren, hala nola, kinetoskopia (Thomas Edison, 1891), zinema (Lumière anaiak, 1895), irratia (Guillermo Marconi, 1895), eta kartelgintzaren garapena.



Kartelgintzaren garapenari helduta eta aurrean dugun kartel honen ildoari jarraituz, aipatutako asmakuntza guzti hauen ondoren, Lehen Mundu Gerra piztu zen 1914ko uztailan, eta kartel hau, urte bereko abendukoa da, arestian aipatu bezala, Alemaniak Scarborough hiri britaniarra bonbardeatu zuen garaikoa. Kartelean ikus dezakegunez, emakume bat azaltzen da haurtxo bat besoetan duela, eta atzean “eraikin” lehertu eta suntsitu bat. Atzean dagoen etxe hori gizon langile baten etxea zen, eta gizon haren emaztea eta haur bat hilik agertu ziren bertan. Kartel honek, alemaniarren piztutako bonbardeaketa horrek eragin zituen sarraskiak azpimarratu eta salatzea du helburu. Gainera, herritar gizonezko guztiei mezu bat igortzen die: “Men of Britain, will you stand this?”, “britaniar gizonezkoan, hau onartuko duzue?”, euskaraz. Hau da, “sarraski hau jasan nahi duzue?”. Hau jasan nahi ez izatekotan, armadako zerrendan euren izenak ematera deitzen ditu kartelak berak amaieran.

3. Ondorioak

Gauza asko esaten ditu kartel honek komunikazioaren ikuspuntu edo arlotik, konbentzitzeko estrategia gisa erabili baitzen bere garaian. Alde batetik, esaldi indartsu batekin ematen dio hasiera kartelari letra handiz, herritarren begiak bertan iltzatzeko. Irudia bera ere oso esanguratsua da; emakumearen eta hauraren atzeko sarraskia azpimarratzen da bertan. Bestalde, testu motz batekin jarraitzen du kartelgileak, azalduz zein den egoera eta zer gertatutakoa, hartzailea testuinguruan jartzeko. Eta, amaitzeko, lehenbailehen herritar gizonezko britaniarrak gerrara militar gisa sartzeko eta zerrendetan izen emateko konbentzitzen saiatzen da.

Garrantzitsua da kartel hau bere osotasunean, irudi eta testutxo baten bitartez herritarrenganaino iristea lortzen baitu, komunikatu beharreko guztiak komunikatuz. (Bakoitzak bere blorazio pertsonala in bar du oain hemen ta lixto).

6. gaia → 6. iruzkina:

1. Sarrera:




6. GAIA → 7-8 iruzkinak :“Alemania guztiak entzuten du Furtherraren ahotsa Volksempfangerrarekin”/Klase guztientzako irratia

1. SARRERA (azalpena eta kokatu) Irudian ikusten den irratia, Volksempfänger edo "Herriaren hargailua, irradi hargailu sorta bat izan zen, Otto Griessingek garatua, Joseph Goebbelsek eskatuta. Volksempfänger programaren helburua, irradi hartze teknologia publiko zabalaren esku jartzea zen, herri xehearen poltsikoaren neurria



“Alemania guztiak entzuten du Führer-aren ahotsa



Klase guztientzako irratia!

egina. Goebbels, alemaniar politikaria izan zen, Hirugarren Reicheko Informazio eta Propagandako ministroa 1933-1945 bitartean. Adolf Hitlerren jarraitzaile sutsuenetakoa izan zen, kemenarengatik eta oratoria boteretsuarengatik ezaguna. Antisemita amorratua izan zen, eta Holokaustoaren lehen pausoa izan zen kristal hautsien gauaren gidaritzat jotzen da.

1933an kokatzen gara, eta irudian ikusten dena, irradiari eginiko kartel bidezko propaganda bat da, izan ere, propaganda masiboak egiten zitzaizkion “Herriaren Irratiari”, egunkari, zine areto edota kartelen bidez. Nazismoaren ikono bezala ezagutzen zen, eta edukietan erabateko uniformitatea zuen, hau da, doktrina ofizialaren printzipioen-menpekoa zen. Hitlerren eta alderdiaren hitzaldiak emititzen ziren bertatik; nazismoaren alde egiteko nolabaiteko masa komunikazioa zen. Nazioaren ideiekin bat zetorrenez, musika alemaniar herrikoia zein klasikoa jartzen zuten; baina konpositore judutarren emanaldiak debekatuak zituzten. Bai irratia eta bai beste hedabide denak ere kolektiboaren/herri alemaniarren interesen zerbitzura jarri zituzten garaia izan zen, hedabide guztien gaineko kontrol zegoen garaia, eta hauen erabilpen sistematikoa gauzatu zen alderdiaren mezuak bazter guztietatik zabaldu ahal izateko. Gainera, alderdiaren mezuekin bat ez zetozen profesionalen jazarpena bultzatu zuten.

2.(TESTUINGURU HISTORIKOA/AZALPENA) 1920tik aurrera zabaldu zen hedabideen masa-erabilpena. Baina honen atzean (AURREKARIXEK), 1870 eta 1914 tartean euforia liberalaren garaia izan zen (liberalismoa, kapitalismo klasikoa, zientzia...) eta estatu indartsuek, nazionalismo kontserbadore eta erasokorra bere eginez, lehia Inperialistari ekin zioten. Inperio zabalena zuen

herriak, ahalmen inperialista hori erabili zuen bere garapenaren seinale/froga bezala. Garai honetan ere liberalismoaren ideien sakontzea eman zen langile mugimenduaren eta feminismoaren (lehenengo olatua) borrokei esker, eta masa mugimendu hauek ikara eragiten zuten klase agintarien artean. Hala ere, beldur hau nolabait alboratzea lortu zen I Mundu Gerraren koiunturari esker; izan ere, identitate nazionalari egindako interpelazioak bestelako aldarrikapenak (ezberdintasunak), momentuz, albo batera uztea eragin zuen, nazioaren/estatuaren aldeko borrokaren mesedetan. Gerra amaitu ostean, langilegoaren lehen garaipena eman zen (Iraultza boltxebikea). Bestalde, 1920.ko hamarkada eroa izan zen, eta sexu iraultza zegoenez, desira homosexuala, androginia, emakumeek kaleak hartzea, hedonismoa hasi ziren zabaltzen, bai eta etorkizunarekiko esperantzarik ezatik momentua bizitzeko (“arduragabekeria”) filosofia ere. Guzti horretan, 1929an, Estatu Batuetako Krack-a ere kokatzen da. Garai honetan eragin handia izan zuten masen jokabideak aztertzen zituzten analisi zientifikoek (batez ere psikoanalisiak eta soziologiak). Sigmund Freuden teoriak nabarmendu ziren; masen talde homogeneousuna, masen borondate autonomorik eza, masen arrazoiaren erabilpenik eza...irudiko irriak zituen ezaugarriak, alegia. Psikoanalisiak barneko ni-aren egia aztertzen du eta hau bideratzeko teknikak garatzen ditu.

Hedabide masiboen bidez (bereziki euskarri berriak) pulsu irrazionalak bideratu zitezkeen hedabideak kontrolatuz gero, hau da, ordena soziala mantendu zitezkeen.

XX mendearen lehen erdialdean hedabide berrien loraldia etorri zen, irratia, zinema eta kartelena alegia. Mezuak modu masibo batean zabaltzeko aukera emateaz gain, komunikazio emozionala egiteko gai ziren, hau da, norbanakoaren inkontzientera (barneko ni horretara) iristeko bereziki gai zirela uste zen. Baina era ezberdinetara, gobernu eta politikariek hedabide hauek erabili edota kontrolatzen zituzten.

Garaiko literatura distopikoaren ardurak, demokrazia liberalen dekadentzia, erregimen totalitarioekiko gizarte-kontsentsua, masa hedabideak eta gizarte kontrola, eta masen otzantasuna ziren.

Ez zegoen liburuak irakurtzeko interesik, eta informazio ugaritasunak, jendea pasibitatean bizitzera eraman zuen, berekoikeriara mugaturik. Hutsalkeriaren kultura gailendu zen; gizarte hedonista, berehalako eta etengabeko plazerra eskainiz lortzen da jendea kontrolaturik mantentzea.

Irudian ikus daitekeena, nazismoaren ikono zen irratia horren propaganda kartela da, lema edo eslogan hau irudiko protagonista izanez: “Alemania guztiak entzuten du Furtherraren ahotsa Volksempfängerrarekin!”. (IRUDIXAI BURUZ KOMENTAU BIDA)

3.ONDORIOAK: Pixkanaka, armarik gabeko gerraren protagonismoa nagusitu zen, eta Gerra psikologikoaren garrantzia handituz: “propaganda eta bestelako ekintzen erabilpen planifikatua,

zertarako eta helburu nazionalen lorpenarekin bat egite-bidean, kanpotarren, etsaien, neutralen eta lagunen artean iritzi, emozio, jarrera eta jokabide jakinak eragiteko".

Gerra luzatu egin zen neurrian, desgaste gerra batean bilakatu zen. Propaganda instituzionalizatu egin zen eta estatuen propaganda bulegoak sortu ziren. Gainera, profesional ezberdinak sortu ziren: bereziki psikologo, soziologo eta kazetariak.

5. GAIA Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“Destruction of the War Ship Maine Was the Work of an Enemy”, *The New York Journal*, 1898 urteko otsailak 17.

Aztergai dugun irudia, 1898an argitaratutakoa da, Kubako independentzia gerraren testuinguruan (1895-1898) *. The New York Journal-en argitaratu zen, Hearst kazetariaren egunkarian.

Kubako independentzia gerra, kubatarrek Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiara batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.



Testuinguan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaiari Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), konpetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...) ... Masa alderdien agerpena izan zen, prentsa politiko berria piztu zen, alderdien egunkariak, interesak defendatze aldera.

Ameriketako Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuta zegoen, masei zuzendutako prentsaren izugarritzko garapena eman baitzen: komunikabideen -trena- garapena, langile antolatua, industrializazio prozesu sakonak... Kazetaritzak negozio izaera hartu zuen, kazetariengan funtzio berriak ezarriz. Kazetari handiak izan ziren aroa izan zen (Pulitzer, Hearst...). Pulitzer kazetarizaren aitzat hartzen da, Hearst, arima gabeko kazetaritza horiaren erredutzat. Lehenak sentsazionalismoa eta konpromisoa orekatu zituen bere egunkarietan, bigarrenak bere egunkarietan seriotasuna ezabatu. Zabaldu nahi zuen mezua mantentze aldera komunikazio-gune erraldoia eraiki zuen: besteak este hainbat irrati-etxeren jabe bihurtu zen.

Hearst-ek politikara egin zuen salto: Kongresurako, Etxe Zurirako, New Yorkeko alkate izateko eta New York.-eko gobernadore izateko hautagai izan zen 6 urteren buruan.

Izan ere, Estatu Batuak gorago aipatu legez Kuba eta Espainiaren arteko gudan sartu zen, eta Hearst-ek zer esan handia izan zuen horretan. Zenbait albiste ezagutarazi zituen, zeinetan bere

ezaugarrietako bat sentsazionalismoaz baliatuz, amerikar gizartea interbentzioaren alde jartzea ekarri zuen. Interbentzioa ahalbideratu zuten hiru kasu nabarmentzen dira, bat zuzenean iruzkineko argazkiarekin lotura duena:

Aztergai dugun irudia, USS Maine itsasontzia hondoratzearen albisteak (Habana, 1898). Hearst-ek espainiarrei leporatu zien itsasontzi horren leherketa. Horrek estatubatuarren iritzi publikoan eragin handia izan zuen eta hori izan zen gerra deklarazioa piztu zuen gertakari nagusia. Aipatutakoaren logikari jarraituz, Estatu Batuek Kubaren aldeko jarrera izan zuten gudan.

Clemencia Aragon-en historiak ere eragina izan zuen esku-hartzearen justifikazio edo on-iritzia ematean. Itsasontzi amerikar batean ustezko sexu jazarpena jasan izan ohi zuen emakume honek. Sexu jazarpen hori Hearst kazetariak asmatu zuen -Aragonek berak gezurra zela adierazi zuen-, baina kazetariak azken unera arte baiezkoa zela mantentzea erabaki zuen. Jazarpen kasu honek amerikar gizartean eragin handia izan zuen.

Ebanjelina Cisneros-en ihesaldiaren albisteak (1896) ere nolabait bideratu zuen estatubatuarren parte-hartzea gudan. Hearst kazetariak honetan ere kubatar independentista bat Kubako espainiar kartzela baten sartu zutela adierazi zuen. Beranduago, preso honek kazetariaren laguntza jaso zuen kartzelarik ihes egiteko. Izan ere, kazetariak Cisneros modu bidegabe (injustu) batean kartzelaratu izan zela saldu zuen, bera inozentea eta oa zela argudiatuz. Hearst-ek Cisneros askatzeko kanpaina bat eraman zuen aurrera, beste behin gizartearen inplikazioa lortuz.

Modu argian ikus daiteke aurreko guztia masa-prentsaren boterearen adierazlea dela eta honek gizartean izan zezakeen influentzia. Beraz, ondorioztatu daiteke masiboa bihurtu zenean prentsak espazio publikoa okupatu eta iritzi publikoan eragin erabakigarria izateko ahalmena izan zuela eta .

5. GAIA→ Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“Evangelina Cisneros Rescued by the Journal”, *New York Journal*, 1897 urteko urriak 10.

Aztergai dugun irudia, 1897an argitaratutakoa da, Kubako independentzia gerraren testuinguruan (1895-1898). Irudia The New York Journal-en argitaratu zen.

Kubako independentzia gerra, kubatarrek Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiara batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.

Testuinguruan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaia Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), konpetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...) ... Masa alderdien agerpena izan zen, prentsa politiko berria piztu zen, alderdien egunkariak, interesak defendatze aldera.

Ameriketako Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuta zegoen, masei zuzendutako prentsaren izugarritzko garapena eman baitzen: komunikabideen -trena- garapena, langile antolatua, industrializazio prozesu sakonak... Kazetaritzak negozio izaera hartu zuen, kazetariengan funtzio berriak ezarriz. Kazetari handiak izan ziren aroa izan zen (Pulitzer, Hearst...). Pulitzer kazetaritzaren aitatzat hartzen da, Hearst, arima gabeko kazetaritza horiaren erredutzat. Lehenak sentsazionalismoa eta konpromisoa orekatu zituen bere egunkarietan, bigarrenak bere egunkarietan seriotasuna ezabatu. Zabaldu nahi zuen mezua mantentze aldera komunikazio-gune erraldoia eraiki zuen: besteak este hainbat irrati-etxeren jabe bihurtu zen.

Hearst-ek politikara egin zuen salto: Kongresurako, Etxe Zurirako, New Yorkeko alkate izateko eta New York.-eko gobernadore izateko hautagai izan zen 6 urteren buruan.

Izan ere, Estatu Batuak gorago aipatu legez Kuba eta Espainiaren arteko gudan sartu zen, eta Hearst-ek zer esan handia izan zuen horretan. Zenbait albiste ezagutarazi zituen, zeinetan bere



ezaugarrietako bat sensazionalismoaz baliatuz, amerikar gizartea interbentzioaren alde jartzea ekarri zuen. Interbentzioa ahalbideratu zuten hiru kasu nabarmentzen dira, bat zuzenean iruzkineko argazkiarekin lotura duena:

Aztergai dugun irudiak, Ebanjelina Cisneros-en ihesaldiaren albisteak (1896), ere nolabait bideratu zuen estatubatuarren parte-hartzea gudan. Hearst kazetariak honetan ere kubatar independentista bat Kubako espainiar kartzela baten sartu zutela adierazi zuen. Beranduago, preso honek kazetariaren laguntza jaso zuen kartzelarik ihes egiteko. Izan ere, kazetariak Cisneros modu bidegabe (injustu) batean kartzelaratu izan zela saldu zuen, bera inozentea eta oa zela argudiatuz. Hearst-ek Cisneros askatzeko kanpaina bat eraman zuen aurrera, beste behin gizartearen inplikazioa lortuz.

Clemencia Aragon-en historiak ere bere eragina izan zuen. Itsasontzi amerikar batean ustezko sexu jazarpena jasan izan ohi zuen emakume honek. Sexu jazarpen hori Hearst kazetariak asmatu zuen -Aragonek berak gezurra zela adierazi zuen-, baina kazetariak azken unera arte baiezkota zela mantentzea erabaki zuen. Jazarpen kasu honek amerikar gizartean eragin handia izan zuen.

Bazen oraindik gerran eskusartzea justifikatu edo babestera eraman zuen beste gertakari bat: USS Maine itsasontzia hondoratzea (Habana, 1898). Hearst-ek espainiarrei leporatu zien itsasontzi horren leherketa. Horrek estatubatuarren iritzi publikoan eragin handia izan zuen eta hori izan zen gerra deklarazioa piztu zuen gertakari nagusia. Aipatutakoaren logikari jarraituz, Estatu Batuek Kubaren aldeko jarrera izan zuten gudan.

Modu argian ikus daiteke aurreko guztia masa-prentsaren boterearen adierazlea dela eta honek gizartean izan zezakeen influentzia. Beraz, ondorioztatu daiteke masiboa bihurtu zenean prentsak espazio publikoa okupatu eta iritzi publikoan eragin erabakigarria izateko ahalmena izan zuela eta .

5. GAIA Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“SPANIARDS SEARCH WOMEN ON AMERICAN STEAMERS. DOES OUR FLAG SHIELD

WOMEN. Indignities Practised by Spanish Officials on Board American Vessels”, *New York Journal*, 1897 urteko otsailak 12.

Aztergai dugun irudia, 1897an argitaratutakoa da, Kubako independentzia gerraren testuinguruan (1895-1898) *. Egilea Frederic Remington da eta irudia The New York Journal-en argitaratu zen.



Kubako independentzia gerra, kubatarrek Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiara batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.

Testuinguan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaia Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), konpetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...) ... Masa alderdien agerpena izan zen, prentsa politiko berria piztu zen, alderdien egunkariak, interesak defendatze aldera.

Ameriketako Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuta zegoen, masei zuzendutako prentsaren izugarriko garapena eman baitzen: komunikabideen -trena- garapena, langile antolatua, industrializazio prozesu sakonak... Kazetaritzak negozio izaera hartu zuen, kazetariengan funtzio berriak ezarriz. Kazetari handiak izan ziren aroa izan zen (Pulitzer, Hearts...). Pulitzer kazetarizaren aitatzat hartzen da, Hearst, arima gabeko kazetaritza horiaren erredutzat. Lehenak sentsazionalismoa eta konpromisoa orekatu zituen bere egunkarietan, bigarrenak bere egunkarietan seriotasuna ezabatu. Zabaldtu nahi zuen mezua mantentze aldera komunikazio-gune erraldoia eraiki zuen: besteak este hainbat irrati-etxeren jabe bihurtu zen.

Hearst-ek politikara egin zuen salto: Kongresurako, Etxe Zurirako, New Yorkeko alkate izateko eta New York.-eko gobernadore izateko hautagai izan zen 6 urteren buruan.

Izan ere, Estatu Batuak gorago aipatu legez Kuba eta Espainiaren arteko gudan sartu zen, eta Hearst-ek zer esan handia izan zuen horretan. Zenbait albiste ezagutarazi zituen, zeinetan bere ezaugarrietako bat sensazionalismoaz baliatuz, amerikar gizartea interbentzioaren alde jartzea ekarri zuen. Interbentzioa ahalbideratu zuten hiru kasu nabarmentzen dira, bat zuzenean iruzkineko argazkiarekin lotura duena:

Aztergai dugun irudia, Clemencia Aragon-en historiaren adierazle da. Itsasontzi amerikar batean ustezko sexu jazarpena jasan izan ohi zuen emakume honek. Sexu jazarpen hori Hearst kazetariak asmatu zuen -Aragonek berak gezurra zela adierazi zuen-, baina kazetariak azken unera arte baiezkoa zela mantentzea erabaki zuen. Jazarpen kasu honek amerikar gizartean eragin handia izan zuen.

Ebanjelina Cisneros-en ihesaldiaren albisteak (1896) ere nolabait bideratu zuen estatubatuarren parte-hartzea gudan. Hearst kazetariak honetan ere kubatar independentista bat Kubako espainiar kartzela baten sartu zutela adierazi zuen. Beranduago, preso honek kazetariaren laguntza jaso zuen kartzelarik ihes egiteko. Izan ere, kazetariak Cisneros modu bidegabe (injustu) batean kartzelaratu izan zela saldu zuen, bera inozentea eta oa zela argudiatuz. Hearst-ek Cisneros askatzeko kanpaina bat eraman zuen aurrera, beste behin gizartearen inplikazioa lortuz.


Bazen oraindik gerran eskusartzea justifikatu edo babestera eraman zuen beste gertakari bat: USS Maine itsasontzia hondoratzea (Habana, 1898). Hearst-ek espainiarrei leporatu zien itsasontzi horren leherketa. Horrek estatubatuarren iritzi publikoan eragin handia izan zuen eta hori izan zen gerra deklarazioa piztu zuen gertakari nagusia. Aipatutakoaren logikari jarraituz, Estatu Batuek Kubaren aldeko jarrera izan zuten gudan.

Modu argian ikus daiteke aurreko guztia masa-prentsaren boterearen adierazlea dela eta honek gizartean izan zezakeen influentzia. Beraz, ondorioztatu daiteke masiboa bihurtu zenean prentsak espazio publikoa okupatu eta iritzi publikoan eragin erabakigarria izateko ahalmena izan zuela eta.

5. GAIA Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“School begins”, *Puck*, 1899 urteko urtarrilak 25

Aztergai dugun irudia Puck, Estatu Batuetako umore aldizkari oso arrakastatsuan argitaratu zen 1899. urtean. Aurrerago azalduko dudanez, besteak beste Kubako Gerrarekin lotutara duen irudia da (1895-1898) hau behin bukatuta argitaratu bazen ere.



Kubako independentzia gerra, kubatarrek

Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiera batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.

Testuinguan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaia Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), kompetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...). Amerikan hazkunde demografikoa eman zen, populazio-mugimendu handiak izan ziren eta soldatapeko bizimodua gailentzen hasi zen. Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuak ziren.

Aztergai dugun irudian, “Osaba Sam”, zibilizazioaren eredu agertzen da Filipina, Kuba, Hawaii eta Puerto Rico-ko umeak zibilizazioaren parte izateko “hezten”. Nahitaez zenbait neurri ikasi beharko dituztela jakinarazten zaie, eredu amerikarrari jarraituz gero zibilizazioko parte izango direlako: zoriontsu, arrakastatsu.

Arbelean irakur daiteke haurren jatorri herriak ez zutela onartu beste herrialde batengatik gobernuak izatea (kasu honetan AEB-gatik), baina nahitaez honek gobernatu beharko dituela azpimarratzen da, hauek bere kabuz gobernatzeko gai izan arte. Ideia hau azpimarratzeko Ingalaterraren adibidea aipatzen da; honek ez zuen itxoin beste lurraldeak gobernatzeko onarpena, eta horri esker zibilizazioak aurrera egin du.

Amerikako Estatu Batuetako estatuen ordezkari ez diren umeak kolorezko legez aurkezten dira, hauen gutxiesteko asmo argi batekin, zibilizazio eta maila eza adierazteko. AEB eta Europaren inperialismoen ezaugarri legez har zitekeen arrazagatiko joera (sesgo racial) hua, ohiko ohi zen erabiltzea garaian.

Karikaturaren bitartez Amerikako Estatu Batuak beste herrialdeak aintzat hartzen ondo egiten dutela ondorioztatu daiteke, bere burua eredutzat dutelako; beste herrialdeak autogobernatzeko gai izan arte honek gobernatu behar dituenaren berrespena da.

5. GAIA Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“WAITING FOR THE VEREDICT” Puck, 1898 urteko uztailak 27

Aztergai dugun irudia Puck, Estatu Batuetako umore aldizkari oso arrakastatsuan argitaratu zen 1898. urtean. Aurrerago azalduko dudanez, besteak beste Kubako Gerrarekin lotutara duen irudia da (1895-1898)



Kubako independentzia gerra, kubatarrek Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiara batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.

Testuinguan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaian Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), kompetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...). Amerikan hazkunde demografikoa eman zen, populazio-mugimendu handiak izan ziren eta soldatapeko bizimodua gailentzen hasi zen. Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuak ziren.

Aztergai daukagun irudiak ondorengo adierazten digu: Amerikako Estatu Batuen indar inperiala. Tio Sam (AEBren ordezkapena) lasai asko agertzen da horma baten kontra jarrita, tente, “Nork hil zuen Espainia?” dion kartel baten azpian. Irudiaren erdigunean Espainiaren gorpuaren errepresentazio bat agertzen da, hilik,. Azken honi begira Europako gainontzeko herrialdeetako ordezkari/gobernadoreak ageri dira, geratatutakoaz mintzo-pentsatzen-. Aldi berean, greziar musa bat “historia” idazten ari da.

Estatu Batuek Kubako gerran izan zuten esku-hartzeak izugarritzko ondorioan izan zituen Espainiarengan, izan ere, honen menpe zeuden Filipinak eta Puerto Rico galtzea ekarri zuen, estatubatuarren esku utziz. Masa-komunikazioaren garaian izanik, Kubako gerraren baitan AEBko komunikabide batzuk (Hearst-ena adib), espainiaren kontrako gerra babestu zuten, iritzi publikoan eragitea lortuz. AEBko USS Maine itsasontzia Habanan hondoratu ondoren, AEBk Espainiari exigitu zion berehala Kubatik alde egitea. Istiluak hasi ziren, zeinetan Estatu Batuek Kuba hartzen bukatu zuten eta 10 asteren buruan, Espainiak bakea eskatu zuen. Bake negoziazioen ostean Parisko

Hitzarmena zinatuz, non AEBk Kubaren gaineko kontrola eskuratu zuen behin-behingoan, bai eta Puerto Rico eta Filipinen gaineko jabetza, besteak beste. Trukean Espainiak 20 milioi dolar jaso ohi zituen.


Espainiak bere inperioaren azken apurrak galdu zituen eta horrek nazioartean krisi egoera zabaldu zuen. Hori da irudiak adierazten duena, hilik geratu den Espainia.

5. GAIA Estatu Batuen interbentzioa Kubako Independentzia gerran.

“The Spanish Brute Adds Mutilation To Murder”. Judge, 1898 urteko uztailearen 9a.

Aztergai dugun irudia Judge aldizkarian argitaratu zen 1898 urteko uztailearen 9an. Aurrerago azalduko dudanez, besteak beste Kubako Gerrarekin lotutara duen irudia da (1895-1898).

Kubako independentzia gerra, kubatarrek Espainiarengandik independentzia lortze aldera izan zen, garai honetan Kuba Espainiar estatuaren kolonia bat baitzen. Hasiera batean gerra Espainia eta Kubaren artekoa bazen ere, Amerikako Estatu Batuak ere tartean sartu ziren.



Testuinguan jartze aldera, 1870-1914 bitarteko garaian Masa Gizartea legez deitu izan zaio, eta urte horietan prentsaren bigarren (1870) eta hirugarren belaunaldiak (1890) belaunaldiak eman izan zirela ulertzen dela. Horrez gain, historiaren tarte hori prentsaren urrezko aro legez har daiteke. Kazetaritza negozio errentagarria zen (enpresa egitura handiak, langile asko...), kompetentzia zegoen eta kreatibitatea garatu beharra zegoen (diseinu erakargarriagok, produktuen aniztasuna...). Amerikan hazkunde demografikoa eman zen, populazio-mugimendu handiak izan ziren eta soldatapeko bizimodua gailentzen hasi zen. Estatu Batuak munduko erreferente bihurtuak ziren.

Estatu Batuak Kubako Gerran parte hartzea ahalbideratu zuten ekintzetako bat USS Maine itsasontzi estatubatuarren hondoratzea izan zen. Kubako gerraren baitan AEBko komunikabide batzuk (Hearst-ena adib), espainiaren kontrako gerra babestu zuten, iritzi publikoan eragitea lortuz. Izan ere, komunikabide estatubatuarren Espainiari leporatu zioten Habanan itsasontziak lehertu izana, honela iritzi publikoan eragin eta interbentzioaren aldeko joera zabalduz.

Egoera horretan zabaldu zen aztergai dugun irudia, hondoratzea gauzatu bezain pronto ezagutarazi zena. Hondoratzearen ostean bi estatuen arteko gerra lehertu zen. Irudiaren erdigune den gorila edo tximino horrek Espainiaren errepresentazio legez balio du estatubatuarren ikuspuntutik; estatu espainiarren izaera demonizatzailea azpimarratzen da, hondoratzearen errua, zama leporatuz. Gorilak Estatu Batuetako bandera zapaltzen du eta odolaz zikindu, estatubatuarrek espainiaren biolentzia maia adierazteko erabilitako beste baliabide bat da hau. XIX. mendearen bukaeran New Yorken

egunkarien arteko lehia handia izan zen eta zenbait hedabidek berriak handitu egiten zituzten salmentak handitzeko. Borroka horretan bi ziren nagusi: Joseph Pulitzerren *New York World* eta William Randolph Hearsten *New York Journal*. Bietan "The Yellow Kid" komikia agertzen zen eta hortik *New York Presse*k kazetaritza horia hitza sortu zuen. Kazetaritza hori horren adibidetzat balio du irudi honek, izan ere, espainiarrekin gerran sartzeko babesak bilatzeko asmoz argitaratzen da. Titutua eta irudia aintzat hartuta, oso argia da egilearen helburua, zeinek pisua hartzen duen gorilaren -gaitzaren- azpian hildako estatubatuarren gorpuak jarrita.